
Lezo Herri Eskola

Ikastetxearen Urteko Plana

2026/2027



Aurkibidea

1. SARRERA

2. IRAKASKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

2.1 Helburuak, ekintzak eta lorpen adierazleak

2.2 Hezkuntza konplexutasunaren indizea (aurrerantzean HKI)

2.3 Ohiko irakaskuntza jardueren programa

2.3.1 Ikastetxearen funtzionamendu eta antolamendu atala

2.3.1.a Egutegia eta ebaluazio-datak

2.3.1.b Ebaluazio egutegia

2.3.1.c Ebaluazio protokoloak

2.3.1.d Aniztasunaren trataera

2.3.1.e Familiekin edo legezko tutoreekin komunikazioa

2.3.1.f Irakasleen eginbeharrak esleitzeko irizpideak

2.3.1.g Tutoretzen banaketarako irizpideak

2.3.1.h Irakasleen koordinazioa

2.3.1.i Saio esklusiboen antolaketa (haur eta lehen hezkuntzan) eta ikastetxean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa (beste mailatan)

2.3.1.j Ikasleak taldekatzeko irizpideak

2.3.1.k Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak

2.3.1.l Gune komunak antolatzeko eta banatzeko irizpideak

2.3.1.m Ikastetxeko zerbitzuak (jantokia, garraioa, liburutegia..)

2.3.2 Berrikuntza eta eraldaketa

2.3.2.a Ikastetxearen berrikuntza-proiektuak

2.3.2.b Berrikuntza arduradunen plangintza

2.3.3. Formakuntza eta garapen profesionala

3. JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKOEN PROGRAMA

3.1 Jarduera osagarriak

3.2 Eskolaz kanpoko jarduerak

4. URTEKO KUDEAKETA-PROGRAMA

5. IUP-AREN GARAPENAREN ETA IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA

6. ERANSKINAK:

6.1. 2026-28 Hobekuntza plana

6.2. 2025-26 Eskola Emaitzak

6.3. 2025-26 Eskola Emaitzen Azterketa

1. SARRERA

Dokumentu honen xedea, Lezo Herri Eskolako hezkuntza komunitateari eta Administrazioari 2026-2027 ikasturterako Ikastetxeko Urteko Plana (IUP) aurkeztea da.

Zuzendaritza-taldea arduratzen da ikastetxearen urteko planaren prestaketa koordinatzeaz. Plan hori onartzea Eskola Kontseiluari dagokio, bazter utzi gabe klaustroak irakaskuntza-jardueren programarekiko dituen eskumenak.

Ikastetxeak 2026-2027 ikasturterako IUPa egingo du ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko du 2026eko urriaren azken eguna baino lehen, Hezigunearen bidez.

IUPa eskolako urteko antolaketa eta ekintza plana azaltzen duen dokumentua da eta honi esker eramango dugu aurrera ikasturtea ekintza zehatz eta erabilgarriekin.

2026-2030erako aurkeztutako zuzendaritza-proiektuan zehaztutako helburuak lortze aldera egingo dugu lan, eskolaren etengabeko hobekuntza bilatuz.

IUPren helburuak zuzendaritza-proiektuan definitu ziren lan eremuekin zuzeneko lotura dute. Helburu horiek zehazteko garaian, 2025-2026 ikasturteko memorian ateratako ondorioak eta hobekuntza proposamenak kontuan hartu dira. Aldi berean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen antolamendua arautzeko eta 2026-28 ikasturteetarako hobekuntza-estrategia bideratzeko ebazpenak dioena kontutan hartu da.

Horrez gain, eskolako eguneroko bizitzarako antolaketa eta ikasturte osoan zehar aurrera eramaten diren proiektu, jarduera eta zerbitzuak ere zehazten dira.

2. IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMA

2.1. Helburuak, ekintzak eta lorpen adierazleak.

1. HELBURUA: Ikasleen irakurketa-eta matematika konpetentziak indartzea, ikaskuntza-prozesua eta eskola-emaitzak hobetzeko

JARDUERAK	BALIABIDEAK	ARDURADUNA	DENBORALIZAZIOA	JARRAIPEN ADIERAZLEA	DATA	LORPEN ADIERAZLEA
Ikastetxeko barne emaitzak aztertu.	25-26 ikasturteko Eskolako emaitzak	Jaione Mendia, Itzalai Alberdi eta Agurtzane Arranbide	Iraila	Eskolako emaitzak islatzen dituzten dokumentuak eskuratu dira eta honakoak aztertzeko bilera egutegia finkatu da.	Abenduaren 19a	Ikastetxeko barne emaitzak aztertu dira, eta antzemandako indargune zein ahulezietan oinarrituz, hobekuntza neurriak proposatu dira.
2025-26 ikasturtean LH2.mailako ITT emaitzen azterketa.	ITT2 emaitzak	Zuzendaritza taldea eta Irakurketa batzordeo burua	Iraila-urria	ITT2 emaitzak aztertu dira eta adostutako datak bete dira.	1.hiruhilekoa	ITT2 frogen emaitzak aztertu eta hobekuntza proposamenak LH3.mailan txertatu dira.
LH2. Eta 5.mailetan ITT frogak	ITT2 eta 5 frogak	Zuzendaritza taldea eta Irakurketa batzordea	Ikasturtea	Frogak pasatzeko epeak finkatu dira.	Ekaina	ITT frogak pasa dira eta emaitzak aztertu ondoren, hobekuntza proposamenak txertatu dira.
25-26 ikasturtean HH-n matematikaren didaktikari buruzko ikastaroan jasotako materiala aztertu eta programazioetan txertatu.	Ikastaroan jasotako baliabideak	Eli Rama eta Ane Lasa	Ikasturtea	25-26 ikasturtean jasotako ikastaroko baliabideak aztertu eta antolatu dira.	Ekaina	HHko Matematika batzordeak baliabideak antolatu ditu eta HHn matematikaren lanketarako proposamenak adostu dira.
25-26 ikasturtean LH-n matematikaren didaktikari buruzko ikastaroan jasotakoarekin momentuko metodologiaren hausnarketa bideratu.	Ikastaroan jasotako baliabideak eta sortutako galdetegiak	Itzalai Alberdi	Ikasturtea	Arduradunak hasunarketa bideartu du eta erabakiak hartzeko egutegia finkatu du.	Ekaina	Jardueraren arduradunak matematika didaktikaren metodologiaren inguruko hasunarketa

						bideratu du eta erabakiak hartu dira.
HH eta LH etapak Irakurketa estrategiak formakuntza (Jabier Azpitarte)	Formakuntzan jasotakoa	Agurtzane Arranbide	Iraila	Klaustrokideek ikastaroko saio orotan parte hartu dute.	Ekaina	Jardueraren arduradunak formakuntza ahalbidetu du eta irakurketa plana aurrera eramateko erabilgarria izan da.
Ikastetxeko Irakurketa Plana osatu	Irakurketa Plan Estrategikoa	Irakurketa plana taldea (Agurtzane Arranbide, Ane Lasa, Itzalai Alberdi, Oihane Burguete, Jaione Mendia)	Ikasturtea	Irakurketa plana taldea osatu da eta bilera egutegia finkatu da.	Urria	Ikastetxeko Irakurketa plana osatu da.
Irakurketaren lanketa sistematizatu	Formakuntzan jasotakoa eta ikastetxeko baliabideak	Irakurketa plana taldea (Agurtzane Arranbide, Ane Lasa, Itzalai Alberdi, Oihane Burguete, Jaione Mendia)	Ikasturtea	Irakurketaren lanketa maila guztietan sistematizatzeko epeak adostu dira.	Ekaina	Irakurketaren lanketa maila guztietan aurrera eramateko proposamenak adostu dira.
HH eta LH etapetan ahozko komunikazio gaitasuna sistematikoki lantzea.	-Kontzientzia fonologikoa lantzeko materiala -EBETE materiala -Berbalapiko materiala -Eskolak sortutakoak	Tutoreak BEA eta BODI figurak	1.hiruhilekoa	Ahozkotasunaren lanketa programatzeko materialak aztertu dira eta programazioetan txertatzeko epe-mugak ezarri dira.	Ekaina	HH eta LHko maila guztietan ahozko adierazpena lantzeko gutxienez jarduera sistematizatu bat garatzea hiruhileko bakoitzean.
Ebaluazio-tresnak eta erremintak aztertu eta bateratze prozesua martxan jartzea.	-Eskolakoak -Ebaluzio agindua	BEA eta Zuzendaritza taldea	Ikasturtean zehar	Eskolako ebaluazio tresnak aztertzeko epe-mugak adostu dira, horretarako etapa bilerak baliatuz.	Ekaina	Ebaluazioa jarraitua, globala eta konpetentzial bateratua lortzeko bidea hasi da.

2. HELBURUA: Ikastetxeko bizikidetza indartzea.						
JARDUERAK	**BALIABIDEAK**	**ARDURADUNA**	**DENBORALIZAZIOA**	**JARRAIPEN ADIERAZLEA**	**DATA**	**LORPEN ADIERAZLEA**
Adostokiaren erabilera indartu	Formakuntzan jasotakoak	Jaione Mendia	Hiruhilean behin	Adostokiaren erabilera areagotzeko kronograma finkatu da.	Ekaina	Adostokia eskolako eguneroko dinamikan inplementatu da eta ikasleen bizikidetzan positiboki eragin du.
Adostokia jolastokira zabaldu.	Eskolan sortutakoak	Jaione Mendia	2.hiruhilekoa	Joan den ikasturtean jasotako prestakuntza saioetan hausnartutakoarekin Elkarbizitza batzordearen bidez erabakiak hartzeko epeak adostu dira.	Ekaina	Jolastokian, haurrak adostokia erabiltzen hasi dira euren gatazkak kudeatzeko.
Bitartekaritza programaren inguruko formakuntza	Formakuntzan jasotakoak	Agurtzane Arranbide	Ikasturtean zehar	Formakuntza saioen egutegia finkatu da.	Ekaina	Irakasleek formakuntza saioetan parte hartu dute eta jasotakoa egunerko dinamikan inplementatu da.
Ikasle laguntzaile programa bideratu	Formakuntzan jasotakoak	Agurtzane Arranbide	Ikasturtean zehar	Formakuntza saioen egutegia finkatu da.	Ekaina	LH5 eta 6ko ikasleek formakuntza saioetan parte hartu dute.
Jangelan gatazkak kudeatzeko estrategien inguruko ikastaroa	Formakuntzan jasotakoak	Itziar Monsalvo	Ikasturtean zehar	Formakuntza saioen egutegia finkatu da.	Ekaina	Jangelako begiraleek formakuntza saioetan parte hartu dute.
Hiruhilean behin kanpainak.	Batzordean sortutakoak	Zuhatz Agirre eta Jaione Mendia	Hiruhilean behin	Ikasle batzordearekin bileren egutegia ezarri da eta horietan elkarbizitzaren aldeko kanpainak antolatu dira.	Hiruhileko bakoitzaren amaieran	Hiruhilean behin eskola mailako elkarbizitza eta harreman onak sustatu dituzten kanpainak aurrera eraman dira.
Behatoki txikiko partaideen partehartzea sustatu.	Batzordean sortutakoak	Jaione Mendia	Hamabostean behin	Ikasle batzordearekin bilera eta elkarrekintzen egutegia maiztasunez planifikatu da.	Ekaina	Behatoki txikiko partaideek aktiboki parte hartu dute.


Ikastetxe seguruak eraikitzen formakuntza	Formakuntzan jasotakoak	Jaione Mendia	Ikasturtean zehar	Prestakuntzan jasotakoa klasutrokideei helarazi zaie.	Ekaina	Arduradunak formakuntza saioetan parte hartu du eta proposamenak luzatu dira.
Berdintasuna eskolan formakuntza	Formakuntzan jasotakoak	Jaione Mendia	Ikasturtean zehar	Prestakuntzan jasotakoa elkarbizitza batzordeko kideei helarazi zaie.	Ekaina	Arduradunak formakuntza saioetan parte hartu du eta hartutako erabakiak aurrera eraman dira.
OBK figuren formakuntza	Formakuntzan jasotakoak	Agurtzane Arranbide	Formakuntzan jasotakoak	OBK figurak prestakuntzan saioetan parte hartu du eta atazak bete ditu.	Ekaina	OBK figurak prestakuntzan jasotakoa barneratu du eta ikastetxeko bizikidetza indartzeko lagungarria izan da.
BAT taldearen lidergoa eraiki	Ikastetxean daudenak	Agurtzane Arranbide	Iraila	BAT talde berria osatu da.	Ekaina	Hezkuntza komunitateari BAT talde berria aurkeztu zaio.
Udaleko prebentzio programa	Prestakuntzan jasotakoa	Agurtzane Arranbide	Azaroa	Udaleko G.Z Prebentzio Programaren bidez klaustrokideei zuzendutako G.Z funtzionamenduaren inguruko prestakuntza saioa adostu da.	Azaroa	Klaustroko irakasleek Gizarte Zerbitzuen funtzionamenduaren berri izan dute.
Ikasleei zuzendutako kanpo-eragileen prestakuntza programa (sexu heziketa, bitartekaritza, lehen sorospenak, Eskola-dantzan proiektua etb)	Prestakuntzan jasotakoa	Prestakuntzan jasotakoa	1.hiruhilekoa	Eragile ezberdinekin prestakuntza data eta helburuak adostu dira.	Ekaina	Ikasturtean zehar jasotako prestakuntzek positiboki eragin dute eskolako bizikidetzan.

3.HELBURUA: Ikastetxean euskararen erabilera eta presentzia areagotzea						
JARDUERAK	**BALIABIDEAK**	**ARDURADUNA**	**DENBORALIZAZIOA**	**JARRAIPEN ADIERAZLEA**	**DATA**	**LORPEN ADIERAZLEA**
Euskara Batzordeko ikasle ordezkarien partehartzea sustatu.	Batzordean sortutakoak eta gizartean egiten diren kanpainak	Itzalai Alberdi eta Agurtzane Arranbide	Hamabostean behin	Ikasle batzordearekin bilera eta elkarrekintzen egutegia maiztasunez planifikatu da.	Ekaina	Behatoki txikiko partaideek aktiboki parte hartu dute.
Komunikazio eta hizkuntza garatzeko programa sortu.	-Programak eskeintzen duena. -EHI figura. -Ikastetxekoak.	Komunikazio taldea (Ana Da Silva, Leire Guijas, Jaione Mendia eta Ane Lasa)	Urria-azaroa	Komunikazio eta hizkuntza garatzeko programa osatu da eta hauxe aurrera eramateko taldearen koordinazio bilerak egin dira.	Ekaina	HH eta LH1 eta 2.mailetan aho hizkuntzaren garapena indartzeko programan parte hartu dute.
Euskara sustatzeko kanpainak	Ikastetxekoak	Itzalai Alberdi	Urria	Ikasle ordezkariekin ikasturtean aurrera eramango diren kanpainak adostu dira.	Ekaina	*Euskozaplasteko* eta bestelako ekintza eta kanpainak egin dira.
Momentu jakinetan taldekatzeak indartu.	Programatutakoak	Tutoreak	Urria-azaroan	Talde homogeneoetan lan egiteko une eta jarduerak baloratzeko koordinazio bilerak egin dira.	Ekaina	Ikasleek euskararen arnasguneetan aktiboki parte hartu dute.
Hizkuntzaren kudeaketa ikastetxean	-Mugikorrak -Aurikularrak -UEMAko eskuorria -INIKA	Mailako tutoreak Zuzendaritza	Iraila-urrian	UEMAko teknikaria, G.Eko ordezkaria eta zuzendaria bildu dira eta lehen urratsak eman dira. Erabakiak hartzeko egutegia finkatu da.	Ekaina	Gelako bileretan euskara erdigunean egon da eta zuzeneko itzulpenak egin dira eta ikasturtean finkatutako helburuak lortu dira.
Euskara Talaiarekin adostutako ekintzak	Euskara Talaiatik proposatutakoak NAak sortutakoak	Itzalai Alberdi eta Agurtzane Arranbide	Urria	Euskara Batzordearekin eta Euskara Talaiarekin koordinazio bilerak antolatu dira.	Ekaina	Ziklo bakoitzerako adostutako ekintzak gauzatu dira eta honek euskaraz gozatzeko eta aritzeko aukerak handitzea ekarri du.
Jolas garaian euskara sustazeko jolas gidatuak.	EBETE jolasak Bestelako baliabideak	Itzalai Alberdi	Iraila	Arduradunak jolas garaiak dinamizatzeko egutegia antolatu du.	ekaina	Proposatutako egutegi eta plangintza bete dira eta ikasleek euskararekiko duten

						atxikimendua handitu da.

2.3.1 Ikastetxearen funtzionamendu eta antolamendu atalak.

a.- Eskola egutegia.



Ikasleen ordutegia: 9:00-12:45 // 15:00-16:30

Jangela: 12:45-15:00

Irakasleria (eskolan): 9:00-14:00 // 15:00-16:30

*Zuendaritza taldeak, zuzendaritza orduak konpentsatu ahal izango ditu.

*Egonaldietara joaten diren irakasleek aldez aurretik adostutako konpentsatzioa izango dute.

ESKLUSIBAK	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
12:45-14:00	Norberaren lanak	Maila bilerak/ Klaustroak	Ziklo/etapa	Batzordeak/ programazioak	Norberaren lanak

b.- Ebaluazioen egutegia.

Ebaluazioaren antolaketa

Ikasturtean zehar hiru momentutan:

- Lehenengo hiruhilekoaren bukaeran
- Martxoaren erdi aldean
- Hirugarren hiruhilekoaren amaieran

Boletinak

HH: 1. eta 2.hiruhilekoetan txosten laburra eta 3.hiruhilekoan informea.
LH: informea hiruhileko bakoitzean.

Boletinak hiruhileko bakoitzaren amaieran egongo dira ikusgai:

1.hiruhilekoa: abenduaren 18an
2.hiruhilekoa: martxoaren 18an
3.hiruhilekoa: ekainaren 18an

c.- Ebaluazio protokoloak

Arreta goiztiarra – Garapen eskalak

Arreta Goiztiarra 2-6 urte bitarteko haurrei zuzendutako esku-hartze programa da. Helburua garapenean dituzten alterazio edo beharrei erantzutea da.

Protokoloaren aplikazioan haurren garapenean hainbat arlo baloratzen dira: motorra eta fisikoa, perstonala eta soziala, pertzepzioa-ulermena, hizkuntza eta komunikazioa, garapen goiztiarra eta alerta-seinaleak.

Adimen Gaitasun Handiko (AGH) ikasleen detekziorako protokoloa

2022-23 ikasturtetik Aurrera AGH ikasleak identifikatzeko, hautemateko eta horiei hezkuntza-erantzuna emateko protokoloa Aurrera eramaten da. LH1 eta LH6.mailako ikasleei aplikatzen zaie.

ITT-Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna

Programa honen helburua da LH2 eta 5.mailako ikasleen irakurketa-trebetasunen garapen-maila neurtzea, eta lortutako emaitzetatik abiatuta, premien arabera, esku-hartzea prestatzea. Prozesua nahitaezkoa da 2026-27 ikasturteko urritik.

Kanpo-ebaluazioa

Ikastetxeetan aldian-aldian (azkena 2024-25 ikasturtean) Hezkuntza Sailak aginduta kanpoko diagnosi-probak egiten dira ikasleen gaitasunen garapen-maila ezagutzeko. Proba hauen helburua ikasleen indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea da, ondoren hezkuntza-erantzuna beharretara egokitu ahal izateko. Proba hauen emaitzek ez dute ikasleen kalifikazio akademikoan eraginik, eta hezkuntza-prozesua hobetzeko informazioa eskaintzen dute.

d.- Aniztasunaren trataera

Gure ikastetxeak hezkuntza inklusiboaren printzipioetan oinarrituta erantzuten dio ikasleen aniztasunari, ikasle guztien presentzia, parte-hartzea, ongizatea eta ikaskuntza sustatuz. Horretarako, hezkuntza-komunitateko eragile guztien arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatzen dira, bakoitzak bere eskumenen esparruan jardunez.

Elkarbizitza-plana

- Elkarbizitza positiboa, ongizate emozionala eta inklusioa sustatzeko ekintzak garatuko dira.
- Bereziki zainduko dira jolasgaraia, jangela, sarrera-irteerak eta gelaz kanpoko gainerako espazioak, ikasle guztien partaidetza bermatzeko.

Ikasle etorri berrien harrera

- Ikasle eta familien harrera, harrera-batzordeak koordinatuko du, tutorearekin elkarlanean.

- Hasierako balorazioa egingo da, ikaslearen behar linguistiko, akademiko eta sozialak identifikatzeko.
- Beharrezkoa denean, HIPI programako baliabidea aktibatuko da eta tutorearekin elkarlanean arituko da.

Hezkuntza-indartzea eta prebentzioa

- Tutore eta irakasle guztiek neurri unibertsalak eta inklusiboak aplikatuko dituzte ikasleen beharrei erantzuteko.
- LHko lehen zikloan irakurketa-idazketa eta matematika konpetentzien garapena indartuko da talde barruko laguntza-neurrien bidez.
- Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) eta metodologi aktiboak erabiliko dira ikasleen parte-hartzea errazteko.

Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleen arreta

- Tutorea, irakasle-taldea eta laguntza-taldea koordinatuta arituko dira ikasleen jarraipena egiteko.
- Beharrezkoa denean, HLE, EHI, aholkularia, Berritzegunea, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak eta bestelako erakundeekin elkarlanean arituko gara.
- Ikaslearen ohiko taldearen barruan ematen diren laguntza-neurriak lehenetsiko dira.
- Hezkuntza-indartzeko norbanako planak eta, behar denean, Curriculumaren Norbanako Egokitzapenak diseinatu eta garatuko dira.

LIP gelaren funtzionamendua eta inklusioa

- LIP gelako ikasleen eskolatzea modu malguan antolatuko da, beren beharretara egokitutako arreta intentsiboa eta talde arrunteko parte-hartzea uztartuz.
- Ikasleen autonomia, komunikazioa, harreman sozialak eta curriculumeko ikaskuntzak sustatuko dira.
- Programazio didaktikoetan eta ikastetxeko jarduera orokorretan LIP gelako ikasleen parte-hartzea planifikatuko da.
- LIP gelako profesionalen, tutoreen eta familien arteko koordinazio sistematikoa bermatuko da.
- Ikastetxeko ekitaldi, proiektu, irteera eta ospakizunetan LIP gelako ikasleen parte-hartze aktiboa sustatuko da.

e.- Familiekin edo legezko tutoreekin komunikazioa.

Familiekin eta legezko tutoreekin komunikazio eta lankidetza estua izatea funtsezkoa da ikasleen garapen integrala eta hezkuntza-prozesuaren jarraipen egokia bermatzeko. Horretarako, komunikazio-bide ezberdinak erabiltzen ditugu, informazioaren truke egokiaa eta etengabeko koordinazioa sustatuz.

- **Aurrez aurreko harremana:** Haur Hezkuntzan, bereziki, familien eta irakasleen arteko eguneroko harremana errazten da ikasleen sarrera eta irteeretan. Elkarrizketa txiki horiek eguneroko informazioa partekatzeko eta beharrei berehala erantzuteko aukera ematen dute.

- **Inika plataforma:** Ikastetxearen eta familien arteko ohiko komunikazio-bide nagusia da. Plataforma honen bidez helarazten dira hutsegiteen justifikazioak, oharrak, zirkularrak, baimenak eta interes orokorreko informazioak.

- **Telefono bidezko komunikazioa:** Premiazko egoeretan edo zuzeneko harremana behar denean, familiarekin telefonoz jartzen gara

- **Banakako eta taldeko bilerak:** Ikasturtean zehar familia-bilerak egiten dira tutoreekin, ikasleen bilakaera akademikoa, pertsonala eta soziala partekatzeko. Horrez gain, beharrak horrela eskatzen duenean, beharrezkotzat jotzen diren banakako bilerak egiten dira.

- **Ikastetxeko webgunea:** Familientzako intereseko informazioa, dokumentuak, egutegiak, albisteak eta ikastetxean egiten diren jardueren berri emateko erabiltzen da.

- **Familien parte-hartzea:** Ikastetxeak familien inplikazioa sustatzen du hezkuntza-komunitateko kide aktibo gisa, elkarlana, komunikazioa eta ikastetxeko jardueretan parte-hartzea bultzatuz.

f. Irakasleriaren eginbeharrak esleitzeko irizpideak.

Irakasleen eginkizunak eta ardurak banatzeko, gure eskolaren beharrak, hezkuntza-proiektua eta ikasleen ongizatea eta ikaskuntza hobetzeko helburuak hartuko ditugu kontuan. Horretarako, irizpide hauek izango dira oinarri:

1. Ikastetxeko proiektu, plan eta ekintzei jarraipena ematea.
2. Irakasleen prestakuntza eta esperientzia kontuan hartzea.
3. Irakasleen ekimena, talde-lana, interesa eta inplikazioa sustatzea.
4. Koordinaziorako eta lankidetzarako behar den denbora eta antolaketa bermatzea.
5. Ikastetxearen lehentasunei eta ikasleen beharrei erantzutea.

g. Tutoretzen banaketarako irizpideak.

- Zikloa bukatzea.
- Eskolako beharrak (ahal dela maila guztietan eskolako irakasle finko bat egotea, maila eta zikloen jarraipena aurreikustea…).
- Irakasleen interesak antzinatasunaren arabera.
- Haur Hezkuntzari dagokionez, tutoreak ikasle talde berberarekin 4 urte ez egitea.

h. Irakasleen koordinazioa.
i. Saio esklusiboen antolaketa [haur eta lehen hezkuntzan] eta ikastexean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa [beste mailatan].

- Astelehena: Norberaren lanak
- Asteartea: Mailako bilerak /Klaustroak
- Asteazkena: Zikloa /etapa
- Osteguna: Batzordeak/ Programazio-ikas egoerak
- Ostirala: Norberaren lanak

j. Ikasleak taldekatzeko irizpideak.

Bi momentutan taldekatzen ditugu:

1. Eskolatzearen hasieran, hau da 2 urteko gelan, hurrengo irizpideen arabera: generoa, familiaren hizkuntza eta jaiotze data. Taldeen arteko oreka bilatzen da.
2. Lehen Hezkuntzan. Talde kopuruaren arabera:
    - HHko talde kopurua mantentzen bada LHko 3. mailan nahasten ditugu taldeak eta eskolan bukatu arte mantentzen ditugu. (Salbuespenak egoeraren berezitasuna kontuan hartuz).
    - HHko talde kopurua aldatzen bada Lehen Hezkuntzara pasatzerakoan.

Taldekatze honetan generoa eta familiaren hizkuntzaz gain ikasleen ezaugarriak kontuan izaten ditugu. Taldeen arteko oreka bilatzen da.

Salbuespen egoeraren bat gertatzen bada (taldeen ezaugarrien aldaketa handiak, harreman arazoak etab.) taldekatze berriak edozein mailetan egin daitezke, irakasle taldeak eta zuzendaritza taldeak hala adosten badu.

Ikasle-talde kopurua

Haur Hezkuntza			**Guztira: 101**
	A	**B**	**C**
HH2	**13**	**12**	
HH3	**11**	**10**	
HH4	**15**	**15**	
HH5	**14**	**11**	
Lehen Hezkuntza			**Guztira: 214**
LH1	**15**	**15**	
LH2	**16**	**15**	
LH3	**15**	**16**	**16**
LH4	**14**	**14**	
LH5	**21**	**22**	
LH6	**18**	**18**	

k.- Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak.

Hezkuntza-errefortzuaren eta laguntzen helburua ikasle guztien ikaskuntza eta garapena bultzatzea da, bereziki hizkuntza, irakurketa, matematika eta ikaskuntza-prozesuetan laguntza behar duten ikasleei arreta eskainiz. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Laguntzak, ahal den neurrian, ikaslearen ohiko taldearen barruan emango dira, inklusioa eta parte-hartzea sustatzeko.
- Beharren arabera, bikoizketak, talde malguak edo talde txikiko esku-hartzeak antolatuko dira.
- Euskararen erabilera eta hizkuntza-konpetentziaren garapena indartuko dira etapa guztietan.
- Irakurketa eta ahozkotasuna lehentasunezko esku-hartze eremuak izango dira.
- Laguntzak prebentzio-ikuspegitik antolatuko dira, zailtasunak ahalik eta azkarren identifikatu eta erantzuteko.
- Tutoreen, espezialisten eta laguntza-irakasleen arteko koordinazioa bermatuko da, esku-hartze koherentea eskaintzeko.

- Ahal dela, laguntzak ziklo bereko irakasleen artean antolatuko dira, ikasleen jarraipena eta koordinazioa errazteko.
- Laguntzen eragina hiruhileko amaieran aztertuko da, ikasleen beharretara egokitzeko.

l.- Gune komunak antolatzeko eta banatzeko.

Ziklo eta espezialitate bakoitzak bere tutoretza izatea, hau da, biltzeko tokia eta behar duten materiala bertan izatea.

Liburutegiaren erabilera ordutegi batekin antolatzen da eta HH eta LHko tutorearekin adosten da, ikasle guztiek ordutegi barruan liburutegia erabiltzeko aukera izan dezaten baita maileguak egiteko ere.

Erabilera anitzeko gelak erabiltzeko ordutegia dago.

Gela bakoitzeko ordutegia atean dago jarrita.

Psikomotrizitate gela Haur Hezkuntzako, LIP gelako eta 1. zikloko ikasleek erabiltzen dute. Tutoreen artean ordutegia finkatu ondoren atean jartzen da.

Eskolako gune komun guztiek (jolastokia, *Itsas-gela*, aterpe estalia…) ordutegi propioa izango dute, eta behar berriak sortu ahala mailakatuko dira.

Eskolako ikas-gelak ez diren gelek ere ordutegi propioa izango dute laguntza saioak, errefortzuak, bikoizketak etab. aurrera eraman ahal izateko. Horrela, espazio komunak modu antolatuan erabiliko dira.

m. Ikastetxeko zerbitzuak

zerbitzua	helburuak	antolatzailea	arduraduna	jasotzaileak	non - noiz	finantziazioa
JANTOKIA	Zerbitzu honen beharra duten familiak atenditzea.	Eskola	Itziar Monsalvo	Izena eman duten ikasle guztiak	Eskolako jangelan egunero	Familiak eta Hezkuntza Sailak
	Ikasleak elikaduraren garrantziaz jabetzea.					
GARRAIOA	Urruti bizi diren ikasleak eskolara ekartzea.	Hezkuntza Saila	Zuzendaria	-Donibane eta Gaintxurizketako ikasleak. -Gela egonkorreko ikasleak	Egunero	Hezkuntza Saila
		Udala		Altamirako ikasleak		Udala
GOIZ TXOKOA	Familia batzuen beharrei erantzutea.	Guraso elkartea	Guraso elkartea	Izena eman duten ikasleak	Eskolako 2 urteko gela batean goizero 07:30etatik 09:00etara	Erabiltzaileak

LIBURUTEGIA:

Liburuzainik ez dugunez, lan hau ez du inorrek bereziki beteko baina, HIPI irakasleak txukunketa lanak egiten ditu horrela egokitutako saioetan eta liburu mailegua tutore bakoitzak egingo du bere taldearekin.

2.3.2 Berrikuntza eta eraldaketa

2.3.2.a Ikastetxearen berrikuntza proiektuak

50/50 BATZORDEA	
Helburua: Kontsumo arduratsua sustatzea, ingurumen eragina murrizteko xedez.	
Ekintzak: -Oarsoaldeko ingurumeneko arduradunekin adostuko da ikasturte honetako funtzionamendua. -Batzordearen helburua, haurrak ingurumenaren kontzientzia hartzea da, eskola eremua ardatz izanda. -Hiruhileko bakoitzean ingurumenarekin zerikusia duen kanpaina antolatzea eta aurrera eramatea. -Talde berdea dinamizatzea. -Ikasturte hasierako ekitaldia prestatu eta bertan parte hartu.	
Denboralizazioa: 15ero ikasleekin batera	**Ebaluazioa:** -Kontsumoa murriztu da. -Hiruhileko bakoitzean ingurmenarekin loturiko kanpaina bat aurrea eraman da. -Ohitura iraunkorrak garatu dira.

BARATZEA	
Helburua: -Inguruarekiko errespetua eta zaintza sustatzea. -Landareen hazkundean urak, eguzkiak eta mantenugaiek duten garrantzia ulertzea. -Landare mota ezberdinak eta hauen atal nagusiak ezagutzea. -Landareen bizi zikloa behatzea eta ekosistema baten parte direla ulertzen hastea. -Nekazaritzaren balioaz jabetzea. -Talde lana sustatzea. -Lanaren eta esfortzuaren garrantziaz jabetzea.	
Ekintzak: -LH4ko ikasleekin baratzeko lanak egin: lurra prestatu, landatu edo erein, ureztatu, uzta, bildu, konposta egin, kimatu, baratza txukundu… -Eskolako festako landare tailerrerako hazitegiak prestatu. -Kalabaza apustua: kalabazen pisuaren estimazioa egin, apustua egin eta irabazleak kalabaza etxera eraman. -Grafikoa astero egiten duen euriarekin (plubiometroa) eta ondoko gelara joan egindako lanak kontatzera.	
Denboralizazioa: -Baratzera: asteazken arratsaldero bi saio. -Grafikoa eta ondoko gelara joatea egindako lanak kontatzera: ostegunetan. -Eskola festa egunean: tailerra.	**Ebaluazioa:** -Talde lanean egoki aritu dira. -Esfortzua balioan jarri dute eta lana ahalik eta hobekien egiten saiatu dira.

	-Landareen inguruko ezagutza eta interesa zabaldu dute. -Baratzera gustura etorri dira.

KOMUNIKAZIO GAITASUNA	
Helburua: Ikasle etorri berriak euskaran murgiltzea (HIPI) Ikasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko hizkuntza murgiltze barnetegietan parte hartzea.	
Ekintzak: • Euskara lantzeko zailtasunak dituzten ikasleekin lanketa espezifikoak egitea. • Ikasle etorri berriekin hiztegi orokor eta arrunta lantzea. • Dagokion maila eta arloko gaitegia lantzea. • Arloetako edukiak birapasatu eta lantzea. • Ahozko adierazmena lantzea. • LH4ko ikasleek Zeraingo Hizkuntza Murgiltze Barnetegian parte hartzea. • LH6ko ikasleek Beiren Ingeleseko Murgiltze Barnetegian parte hartzea.	
Denboralizazioa: HIPI saioak, astean 4-6 saio Urtarrilak 25-29 Apirilak 12-15	**Ebaluazioa:** -Ikasle bakoitzak bere helburuak bete ditu. -Ikasleek Hizkuntza Murgiltze Barnetegietan parte hartu dute.

ZABARRE IRRATIA	
Helburua: -Ahozko adierazmena lantzea -Euskararen erabilera bultzatzea -Euskal kultura indartzea -Euskal abestiak ezagutzea eta lantzea.	
Ekintzak: -LHko talde guztiek gutxienez irratsaio bat aurrera eramatea. -Astero irratsaio bat. -Gaitasun digitala eta teknologikoa modu praktikoan garatzea (LH6ko ikasleak teknikari lanetan). -Euskal abestiak ezagutu, landu eta erabiltzea. -Egun berezietan irratsaioa gaiarekin lotuko da (Gau Beltza, Gabonak, Inauteriak, emakumearen eguna…)	
Denboralizazioa: Irratsaioak astero	**Ebaluazioa:** -Saioak egoki aurrera eraman dira. -Errespetuzko jarrera eduki dute.

ELKARBIZITZA BATZORDEA
Helburua: -Eskolan elkarbizitza egoki baten alde lan egitea.

Ekintzak: -Adostokiaren erabilera indartu eta jolastokira zabaldu. -Hiruhileko bakoitzean kanpaina ezberdinak aurrera eraman. -Behatoki txikiko partaideen partehartzea sustatu. -Ikasle laguntzaile programan parte hartu eta landutakoa praktikan jarri.	
Denboralizazioa: Batzordeko kideak 15ero ikasleekin batera	**Ebaluazioa:** -Aurreikusitako ekintzak aurrera eraman dira. -Koordinazio bilerak aurrera eraman dira.

BERTSOGINTZA	
Helburua: -Ahozko komunikazioa lantzea da proiektu honen helburua bertsolaritzaren hainbat baliabide erabiliz -Bertsogintza bitarteko delarik, hau da, eskola curriculumean bertsolaritza ezarriz, ikasleen euskararen erabilpen maila eta kalitatea handitzea. -Bertsotarako zaletasuna piztea eta bertsogintzari eskolako jardunean funtzionalitatea emanik, zaletuen beharrak eta gogoak elikatzea.	
Ekintzak: -Ikasturtearen hasieran girotze saioa 2 bertsolariren eskutik. -LH 4. eta 5. mailako tutore eta ikasleekin Bertsozale Elkartetik datorren irakaslea arituko da. -Ikasturte bukaeran bertso emanaldia.	
Denboralizazioa: -Astean behin tutorearekin, hamabostean behin bertsolariarekin.	**Ebaluazioa:** -Ahozkotasuna landu da. -Ikasleek bertsogintzarekiko jarrera egokia izan dute eta zaletasuna erakutsi dute.

EUSKARA TALAIA	
Helburua: -Euskararen erabilera indartzea. -Euskal kultura indartzea. -Euskara Talaia taldearekin elkarlanean haritzea.	
Ekintzak: -Irakasle, guraso, zuzendaritzako kide eta ikaslez osatutako batzordea. -Gure hizkuntzak beharrezkoa duen presentzia irudikatzea. -Irudikatze hori ez ohikoak diren ekintzez osatutako partehartze egunetan islatzea. -Euskal erreferenteak eskolara hurbiltzea. -Euskara Talaia taldearekin adostutako ekintza eta emanaldiak aurrera eramatea (antzerki tailerra, idazleak ikastetxean, euskal erreferenteak…) -Euskarari komunikazio ludiko eta ez formalean bere esparrua eta erabilgarritasuna ematea. -Aurreko ikasturteko balorazio positiboaren ondorioz, aurten ere ikasleen ekintzen antolakuntza antzekoa izango da eta gurasoek ekintza ezberdinak antolatzen jarraituko dute.	
Denboralizazioa: Ikasturtean zehar kanpaina eta ekintza desberdinak egingo dira. Euskara Talaiako gurasoekin koordinazioa ikasturtean zehar. Batzordeko kideak 15ero ikasleekin batera	**Ebaluazioa:** -Aurreikusitako ekintzak aurrera eraman dira. -Ekintzek irakasle eta haurren balorazio positiboa izan dute. -Koordinazio bilerak aurrera eraman dira.

IGERIKETA PROGRAMA	
Helburua: -Jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak sustatzea. -Uretako ingurunean moldatzeko oinarrizko trebetasunak garatzea. -LH1 eta LH2.mailako Ikasleen autonomia, segurtasuna eta konfiantza indartzea.	
Ekintzak: -LH1 eta LH2ko ikasleek igerilekuko ikastaro trinkoan parte hartzea. -Uretara egokitzeko eta oinarrizko segurtasun neurriak lantzeko jarduerak egitea. -Arnasketa, flotazioa, desplazamendua eta oinarrizko igeriketa-trebetasunak garatzea. -Jarduera fisikoaren eta ohitura osasungarrien garrantzia lantzea. -Ikasleen autonomia eta konfiantza sustatzea. -Familiei ikastaroaren helburuen eta garapenaren berri ematea.	
Denboralizazioa: Ikasturtean zehar 4 asteko ikastaro trinkoa maila bakoitzeko.	**Ebaluazioa:** -Aurreikusitako ekintzak aurrera eraman dira. -Ekintzek irakasle eta haurren balorazio positiboa izan dute.

IKKI LAN METODOLOGIA	
Helburua: -IKKI metodologia LH etapan modu koordinatuan erabili eta sendotzea. -Ikasleen autonomia, parte-hartze aktiboa eta konpetentzien garapena sustatzea. -Irakasleen eguneroko lanean metodologia aktibo eta inklusiboak indartzea.	
Ekintzak: -IKKI metodologiaren aplikazioari buruzko koordinazio bilerak egitea. -IKKIren markoan diseinatutako egoera eta ikaskuntza-jarduerak programazioetan txertatzea. -Ikasleen autonomia, lankidetza eta hausnarketa sustatzen dituzten dinamikak gelan aplikatzea. -Baliabide eta material komunak adostu eta erabiltzea. -Metodologiaren garapena klaustroan eta etapa-bileretan aztertzea.	
Denboralizazioa: Ikasturtean zehar	**Ebaluazioa:** -Adostutako ekintza aurrera eraman dira. -IKKI lan metodoa programazioetan txertatu dira.

IRAKURKETA	
Helburua: -Ikasleen irakurzaletasuna sustatzea. -Irakurketa-ulermena eta ahozko nahiz idatzizko hizkuntza-gaitasuna hobetzea. -HH eta LH etapetan irakurketa ohitura sistematikoa garatzea. -Irakurketa plana osatzea.	
Ekintzak: -Irakurketa plana osatzeko taldearen asteroko koordinaketa bermatzea. -Eguneroko irakurketa-saioak programazioaetan txertatzea. -Programa ezberdinen bidez -Ikasgela eta eskolako liburutegien erabilera sustatzea. -Adinari eta interesguneei egokitutako irakurketa-proposamenak eskaintzea. -Irakurritako testuei buruzko elkarrizketak, hausnarketak eta jarduerak egitea. -Familiekin elkarlanean etxeko irakurketa-ohiturak sustatzea. -Liburuaren astea, ipuin-kontalariak edo antzeko irakurketa-sustapenerako jarduerak antolatzea. -Etapa guztietan irakurketa estrategiak modu sistematikoan lantzea.	
Denboralizazioa: -Ikasturte osoan zehar. -Eguneroko irakurketa-saioak eta hiruhileko bakoitzean irakurketa sustatzeko jarduera espezifikoak. -Irakurketa plana osatzeko taldeko kideak astero.	**Ebaluazioa:** -Aurreikusitako ekintzak egin dira. -Liburutegien erabilera sustatu da. -Irakurketa ulermena lantzeko jarduerak sistematikoki garatu dira. -Irakurketa plana osatu da.

KOMUNIKAZIO ETA HIZKUNTZA GARATZEKO PROGRAMA
Helburua: **-**Ikasleen komunikazio-gaitasuna eta hizkuntza-konpetentzia hobetzea. **-**Ahozko hizkuntza eta adierazpena sistematikoki lantzea. -Hizkuntza-zailtasunak garaiz identifikatu eta horiei erantzun egokia ematea. -HH eta LHko 1.zikloan komunikazioaren lanketa modu koordinatuan garatzea. -Komunikazio eta Hizkuntza Garatzeko Programa diseinatu, adostu eta ezartzea. -Komunikazio eta Hizkuntza Garatzeko Programa aurrera eramateko taldea osatzea.
Ekintzak: -Komunikazio eta Hizkuntza Garatzeko Programa osatzeko lantaldearen koordinazioa bermatzea. -Ikastetxearen komunikazio- eta hizkuntza-beharren diagnostikoa egitea. -Ahozkotasuna lantzeko jarduera sistematikoak programazioetan txertatzea. -Hizkuntza-zailtasunak dituzten ikasleentzako prebentzio- eta laguntza-neurriak adostea. -Irakasleen arteko material eta baliabideen trukea sustatzea.

-Programa osatu eta klaustroan aurkeztea.

Denboralizazioa:	**Ebaluazioa:**
-Komunikazio eta Hizkuntza garatzeko programa osatzeko taldeko kideen asteroko koordinkaeta.	-Aurreikusitako ekintzak egin dira. -Komunikazio eta hizkuntza garatzeko programa osatu da.

MATEMATIKA METODOLOGIA
Helburua: -Innovamat proposamen didaktikoaren irakaskuntza sendotzea. -Ikasleen gaitasun matematikoa garatzea, manipulazioaren, esperimentazioaren eta arrazoiketaren bidez. -Matematikarekiko jarrera positiboa eta motibazioa sustatzea. -Problemak ebazteko, pentsamendu logikoa garatzeko eta estrategiak erabiltzeko gaitasuna indartzea. -ADI materialak modu sistematikoan txertatzea ikasgelako praktikan. -Oinarrizko kontzeptu matematikoak modu esanguratsu eta ulergarrian eraikitzea.
Ekintzak -ADI (Adimen Konputazionala, Programazioa, Robotika eta Adimen Artifiziala lantzeko programa) materialaren erabilera programazioetan txertatzea. -Zenbakikuntza, kalkulua, geometria, neurketa eta problemak ebazteko material manipulatiboak erabiltzea. -Ikasleen arrazoiketa matematikoa sustatzeko elkarrizketa matematikoak bultzatzea. -Problemak ebazteko estrategia ezberdinak partekatu eta aztertzea. -Irakasleen arteko koordinazioa sustatzea, baliabide eta esperientziak partekatzeko. -Irakasleek irakaskuntza zabaldu eta zehazteko prestakuntza espezifikoa. -Matematikaren inguruko erronkak, tailerrak edo jarduera bereziak antolatzea.

Denboralizazioa:	**Ebaluazioa:**
-Ikasturte osoan zehar. -Astero ADI materialaren erabilera sistematikoa. -Ikasturte amaieran programaren garapenaren jarraipena eta balorazioa egitea. -LH etapa koordinazio-bileretan aldizkako jarraipena egitea.	-Aurreikusitako jarduerak eta saioak egin dira. - ADI materialak modu erregularrean erabili dira. -Irakasleen arteko koordinazioa gauzatu da.

2.3.2.b Berrikuntza arduradunen plangintza

BeA-ren lan ardurak
-Eskola emaitzen azterketa egin eta hobekuntza planaren doikuntzan parte hartu. -Irakurketa Plana Taldean parte hartu. -LH2 eta 5.mailetan ITT frogak pasa eta emaitzak aztertu beste kideekin batera. -Euskara Normalkuntzaren ardura eramango du, Mintegietan parte hartuz, Euskara Batzordea gidatuz eta Euskara Talaiako ekintzak antolatuz. -Eskolan aurrera eramango diren formakuntzak gainbegiratuko ditu. -BEA figuren formakuntza saioetan parte hartuko du. -Irakurketaren sistematizazio plana Aurrera eramaten lagundu. -Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean arituko da eta koordinazio momentuak izango ditu.
BODI-aren lan ardurak
-HH-n kontzientzia fonologikoaren lanketa aurrera eramaten eta gainbegiratzen, -EHI programa osatzen lagunduko du. -HH-n matematikaren lanketa sistematizatzen eta behar diren hobekuntzak antolatzen. -Programazioak eguneratzen. -Hizkuntza eta Komunikaziorako programa sortu eta aurrera eramaten parte hartu. -Irakurketaren sistematizazio plana aurrera eramaten lagundu. -Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean arituko da eta koordinazio momentuak izango ditu.

2.3.3 Formakuntza eta garapen profesionala.

Ikastetxearen prestakuntza proiektu edota ekintzak [deialdi ezberdinen barruan].

Gaia: EKHA		
Curriculumarekin lotura	Egutegia	Finantziazioa
Euskara eta eleaniztasun gehigarria lehentasun pedagogikoaren barruan kokatzen den formakuntza honen oinarria 77/2023 Dekretuko 8.artikuluan, Hizkuntza-esparruari buruzkoan dirau. Honetan zehazten denez, hezkuntza-sistemaren lehen helburuetako bat ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea da, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik, euskararen erabileran sakonduta. Horrela, ikastetxean bertan garatzen diren jardueretan eta kanpo-proiekzioko jardueretan adierazpidea euskara izatea sustatu eta ziurtatuko da. 17/2023 Legeak orain artekoarekin bat eginez dio Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxeek, hezkuntza-proiektuaren osagai gisa, hizkuntza-proiektu propio bat egin behar dutela hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren zehazteko, helburua izanik euskara ardatz nagusi izango duen sistema eleaniztuna bultzatzea.	Hilean behin	-Euskarartea 26-27 -Euskara Talaia

Gaia: Babes zibil eta larrialdietako ikasleen prestakuntza		
Curriculumarekin lotura	Egutegia	Finantziazioa
